



LIBURUA

# Irakurtzen lehenetakoa



## LAGUN IZOZTUA JOSEBA SARRIONANDIA

ELKAR, 2001

ARITZ GALARRAGA

**H**an-hemenka irakurri izan diot Bernardo Atxagari Joseba Sarrionandia poeta ona iruditzen zaiola, handia; inon gero jarraian irakurtzeko halaber poemak idaztea erraza dela. Baina poeta ona izatea oso zaila, “eta bera bada”. Sarrionandia. Azkenaldian saikeragintzan ari da batez ere, emaitza nabarmenekin ari ere, Euskadi Sari polemiko bat tarteko. Nobela bat daukat, ordea, neronek behintzat, haren kutunen arteko.

Nobela bat, ia bakarra, ipuin luze gisa hartzen baitu askok narrazio laburra, *Kolosala izango da* izenekoa. Dena delakoarekin, *Lagun izoztua* bada. Beñat Sarasolak joan den hamarkadako albiste literario sonatuenetakotzat dauka. Eider Rodriguezek tesi oso bat eskaini zion zehatzago, itsasoak Sarrionandiaren

lanetan duen presentziari, *Lagun izoztua* hori bai aztergai nagusi-. Ezin uka liburuak baduela txungurra. Pertsonaiak: Goio, Maribel, Andoni. Lekuak: Antartika, Erdi-Hego Amerika, Kalaportu. Denborak: geroa, oraina, iragan garaia. Denbora kronologikoa desakreditatzen duela esango dizu Markos Zapianek, eta mugimendu dialektikoa. Denbora eta espazioaren inguruko gogoetak aupatuko ditu Iratxe Gutierrezek. Etxetik –dena delakoa dela etxearen kontzeptu horiurrun denbora daraman honek, ordea, beste kontu bat nabarmendu nahiko luke: Sarrionandia, hain zuzen, erbestatuaren paradigma, erbesteaz idazten irakurtzea. Hala hasten da liburua: “Ulisesen madarikazioa dun. Hemen bizi gaitun eta hara itzultzea dinagu beti goan, baina zenbat eta geroago orduan

eta zailagoa dun”. Baikorrageo bukatzeko: “Eta zure mentura Ulisesena baino ederragoa izango da, edonora joanda ere, egundo egon ez zaren lekura itzuliko zarelako”. Eta tartean hamaika kontu, irakurleok, denok erbestera, nahiz gure jaioterrian –baina bizitza arrotz honengandik–, jakingarri aurkituko ditugunak.

Joseba Sarrionandiaren obra gutxi-asko erdaratzen ari den garaiotan (gaztelaniara, luze gabe, baina baita katalanera ere), ez da ulertzen nola nobela hau ez dagoen itzulita oraindik, idazlearen obrara sartzeko ezin egokiagoa izanik, ondo jasotzen baititu haren bideak, haren gaiak, haren kezkek. Eta poeta ona izateaz gainera eleberrigile nabarmena baita. Itzulpen zerrenda horretan hurrena beharko luke honek, eta, originalen artean, irakurtzen lehenetakoa. ●